

# Zer da ezkertiar izatea? (I)

Konprengarria da, ba, ezker «klasikoak» eta ezker «berriak», Euskal Herrian ere, «ezkertiar», «sozialista» eta beste izenlagun (adjetibo) ohoragarriak elkarri ukatzea: komunistek eta sozialistek, herbestean edo garzetaletan dauden gazte horietaz, edo berdin beren hezurak batzerren batetan utzi dituztenetaz, demokratik eta norbaitean kontrarioak direla, esango dizute gehienik ere. Baina, konfiantza alderi, txobinista burges-tipi batzuk direla ere, gustora esango lizukete. Ez dira deskuidatuko, ezkertiar eta sozialista diririk esaten. Eta aldrebes, «berriok» ezker «klasiko» haien ezkertasunean ez dute gehiegi sinesten: XIX mendeko azkenetako antinomia bati atxikirik darraizkio la, esango dizute. Eta deskuidatzen bazara, erre-bixionista-inperialista direla ere bai.

## KONZEPТУ BEREZIKI ERLATIBOAK

Beraz, ezker/eskuin konzeptuak bereziki erlatiboak ditugu. Politikan erabiltzen diren gehienak baino ere erlatiboagoak, eta hori bada zerbaitez esatea. Eskuinaz eta ezkeriaz idatzi duten guzietatik aitorzen dute hori. Baina erlatibotasun hori ez datza esandakoan bakarrik. Zertan datza eskuindar edo ezkertiar izatea? Honelakoak, edo antzekoak, edozein Autoretan iraurkitzeko daitezke:

—«Ezkerartzat edo eskuindartzat hartu chi dana, lan-baldintza bat da. Ez bata eta ez bestea, hutsik eta osorik, ez dira kondairan aurkitzen» (Txillardeggi).

—«Ohar bat egin behar dute: ezkertiar izatea ez dela «ezkertiar» izena erabiltzea» (Txillardeggi). Mikel Anzumendi-Intxausti, esaterako, ezker klasiko dextente uzten zuen noizpait eskuin aldera (ik. JAKIN 34, 1969, or. 24): «Tragatiaz berriro derradan nola komunist Alderdi gehienak, nola «ezkertiar» politikagile zombaitak, nola «aurrerako» mugia aintzek, zanzpiza bera [gizonon arteko elkar zanzpiza, alegia] arratsen duten, agintaritzaren usainean: ideologik borxatzen dituzenez, bururakoen jomuga motz bat (boterea soil-soilik) absolutizatzen dute».

Are garbiago mintzo zaigu Kolakowski: «...Sin embargo, su contenido («ezker» konzeptuarena) resulta extraordinariamente nebuloso y es captible más bien con el sentimiento que con la inteligencia». Apenas es posible «determinar de una manera absoluta por dónde transcorre la línea divisoria entre izquierda y derecha en la correlación de las fuerzas políticas de la sociedad tomada como un todo. Se habla de una izquierda en el partido de Hitler (...)». Eta: «La división de la sociedad en izquierda y derecha apenas es practicable. Se puede ser de izquierda con respecto a un determinado movimiento y a la vez estar a la derecha en relación con otro. Sólo en este significado relativo resulta posible emplear con sentido esas palabras». Arago, ez da inposible, gauza batzuetan ezkertiarri jokatzen duenak, beste batzuetan eskuindarki jokatzea. Eta posible da, halaber, postura izugarri ezkertiar batzuk, zenbait kondizioetan, eskuindar gertatzea ere.

«Ahora bien, qué es lo que queremos significar cuando decimos que un movimiento o una actitud son de izquierda con relación a otros? Expresado con mayor precisión, ¿qué es común a todos los conceptos de izquierda cuando se los aplica a todas las situaciones sociales? Cuando hablamos, por ejemplo, de la izquierda del partido radical en Francia, o de la izquierda de la socialdemocracia, o de la izquierda católica, o de la izquierda comunista, tiene esa calificación, empleada en contextos tan dispares, algún sentido común?». Kolakowskik aitorzen duenez, apenas dago galdera horiek erantzuterik.

Eta abar.

## EZKER ABSOLUTOA ETA EZKER ERLATIBOA

Ezkerrek totalismoa bere baitan beharrezkoa dela, baina haren esklabo bihurtzeko ez dadukala, esaten duen bezala, esan liteke orobat: ezkerre, nolabait, beti ezker absolutoa dela, eta aldi berean erlatiboa. Ezkerren azkeneko helburuek absolutorantz jotzen dute, baina praktika —praktiak beti kalkulua inplikatzan duenez gero— nahitaez erlatiboa da. Ez da bestegatik, mugimendu iraultzaile guzietatik iraultzaren fase diferentek berezten badituzte.

Guzi horrenatik, eta bistan dagoen beste arrazoi askotatik, dudagarria eritzen diot Txillardegiren eritzi honi: «ezkertiar dana, danetan da ezkertiar; era berean, eskuindar (edo eskuibatar) dana, danetan da eskuindar». Bai ote? Eritzi hori oso zabaldua dago gure artean, baina kritikoki probatu gabekoa dela iruditzen zait.

Har dezagun diborziorean kasu konkretua, adibide moduan: eskuindar ala ezkertiarra da, diborziorean alde ala kontra egotea? Ez dira eskuindarrak izan, diborzioreko eskubideen alde gehiena bururkatu direnak. Baina diborziorean kontra egon diren bakarrik eta guziaz, ez dira eskuindarrak izan. K. Marx, adibidez, eta bere araziengatik, diborziorean kontra zegeon. Eta egunotan beraurtan, Horkheimer neomarxistak Paulo VI. Humanae Vitae enziklika defendatu zuen, halajainak! Beste adibide bat, oraindik: teatroun progresista eta abangoardista izango zen, baina Pi-randelloren eritzi politikoa negargarriak ziren. Dali, ez alpatzea hobe. Maoren teoria literarioak guziz «iraultzaileak» dira; haren obra poetikoa formarik kontrabandorenean eta klasikoenean eginna dago. Trotzkik eta Gorbelssek arte modernoa modu guziz

berdintsuan kondenatu zuten, kubismoa adibidez; eta Ezker/eskuin konzeptuen usadiozko anbiguidadea adierazten duten adibideak, milaka aurki daitezke.

Berezikuntza batek zerbaitez lagun lezakeela, uste dut: profeta ezkertiarra gauza guzietan ezkertiarra da. Postura profetikoa hartu, eta postura profetikoa hutsetan gelditzen dena, hots, kritika eta proposamendu jeneraletan ari dena, edozertan eta beti izan daiteke ezkertiarra. Berezko senaz bezala, instintuz bezala. Postura hori funtsean izpiritu bat besterik ez lait da, edozein gauzari buruz a priori hartzen (eduzitzen) den jarrera jeneral bat, kasu bakoitzaren aurrean aktualizatuta. Baina ez dago gauza guziaz profeta bezala tratatzerik. Profetak gauzei agindu nahi izaten die; baina gauzek berak ere agindu nahi izaten dute. Hau da, burruka eta ekintza bezalaxe, determinismoa ere badago historian. Honelako Euskal Herri bat, edo ikastalak, edo literatura, nahi nituzke, esatea, beste honek osatu beharko du: Euskal Herri honek, eta ikastolek, eta literaturak berak, gauzek berak alegia, honelakoak izan nahi dute. Praktikan dabilenak ba, beti neurriak hartuta eta kalkulak eginez jardun behar izaten bait du, anbiguidade hargit gehiago aurkitzen du, eta ez daduka beti profetak bezain «ezkertiarri» erabakitzerik. Agindu ezszik, gauzei obeditu behar bait daduka. Teknikak ez du profetaren ezkertiarasunik, praktikak ez teorikoak hainako ezkertiarasun garbirik. Alegia, izpiritu liberala edozertan da liberal; izpiritu ezkertiarra edozertan ezkertiar; baina izpiritu liberalak eta ezkertiarrek ez dituzte beti, edozein problemaren aurrean, postura liberalak eta ezkertiarrek hartu ahal izaten. Besterik uste izatea, edo besterik eskatzea, idealismo eta boluntarismo hutsa da, eta determinazio historikoei batere jaramonik ez egitea: izpirituak guzian beren (barneko) legeak onartu beharrik ez dadukala, uste izatea. Gauzei gure izpiritua diktatu nahi izatea. Arras aitzitik, ekintzan posible da, ikastolen problemaren aurrean adibidez, ezkertiar zintzoak uste batez postura «eskuindarrak» hartu behar izatea, batzuetan (Leninek ere mila aldiz egin zuen bezalaxe). Ikastolak —hots, gauzak berak— agintzen bait du hor zer postura hartu; eta ez norbere izpiritu liberala edo ezkertiarra aisa bere kontura. Besterik ikusten dugu, halare, eta izan ere, problema horiek «se abordan con presuposiciones (ideologikak, gehienetan) que, si no están por debajo del nivel de la conciencia, al menos lo están por debajo del nivel de la discusión» (L. Dewart). Hau da, ez dago uste konkretuko eginkizunen mailan. Utopien eta printzipio hutsen, hodeietan dabilenak bakarrik, lor lezake, edozertan eta beti ezkertiar huts eta garbi-garbi agertzea. Baina halakoak gauzetatik nahi lukeena, adierazten du; ez gauzein egin litekeena. Ez bait du gauzari berari ezintzen eta obeditzen: diktatu eta agindu egin nahi dio bakarrik. Eta, hemen ere, dialektikoak biak egin beharra daduka.

Une berean absoluto etaerlatibo izateak ezkerrean baitan sortzen dituen tirandurak, erakusteko, beste zenbait kasu ere aipatu ahal izango litzake: medioen problemak eskuindar bihurtzen duen ezkertiarrena, esaterako (gogora behinokoa surrealisten patua; sozialismo radikaletik jalgitako faxismo italiarra, etc.).

Txillardegirena, ba (ezkertiarra gauza guzietan dela ezkertiar), zuzen iruditzen zait: 1) izpirituaz esanda; 2) ideologiaz esanda (ez teoria konkretuaz esanda, ordea); 3) eta ideal edo jomuga bezala. Ez, errealdade bezala, egunoro gertatzen denaren deskribizio bezala, eta ezta oraindikozko posibilitade bezala ere. Egunoroko ezkertiarra larriago eta trakeskiago ibiltzen da, moldegaizkiago moldatzen da, ideologiaren hodeietatik jektita baldin badabil behinik-behin. Beste honek egiazkoagoa dirudi: «guziki agertu ohi gera... aldika eskuindar eta aldika ezkertiar» (Txillardegirena hori ere).

Testuinguru honetan jarri behar da intelektualaren eta ekintzalearen arteko tirandura naturala ere (ik. Intelektualak eta ekintza-gizonak, «Huntaz eta Hartaz» liburuan): ekintza-gizona ezin izan daiteke intelektuala bezain ezkertiar. Lenin intelektuala askoz ezkertiarra da Lenin ekintzalea baino; Mao teorikoa, politikoa baino ezkertiarra da. Eta, dirudenez, gure intelektual asko ere ekintzaleak baino, gure errealdadea ta posibilitadeak baino ezkertiarraoak dira. Eta hori ez da munduko gauzarik bidezkoena ta simplena besterik: helburua ekintza konkretua ta burruka konkretua baino ezkerretarako ez balego, ez legoke zergatik ekin eta salatu. Helburuan geundeko. Helburuan ez gauden artean, berriz, ezkerrean uste berean absoluto ta erlatibo izan beharko du, helburuaren eta praktiaren arteko tentsioa safritu beharko du, ta intelektualean eta ekintzalean elkar-lana beharko da. Hortarako, ordea, lehenengo bion berekuntza eduki beharko dugu. Ta ez dadukagu. Apezaldian dago eskatuta, baina agian asko falta da lortu arte:

«Ekintza-gizonak arrazoian du bere jokabidean, ez da zalantzarik; eta intelektualek ere arrazoian du berrean. Egia du hunek ere ekintza-gizona, adinarengatik eta ekintzarenatik beragatik, eskuindartzen ari dala segurutzen duenean. Hala da. Utz, beraz, biak jokoan: utz alkarri laguntzen, utz alkar osatzen. Ez ixilaraz intelektuala; ez geldiaraz ere ekintza-gizona-rena lana, baietik eta oso xuxena ez dala... Alkar ezintzen ezkerre ongi ariko dira biak: tira-biran, baina historian ahal ditekian ondoenik, dudarik gabe».

«Ez bitez izan, beraz, intelektualek politika-agintari; bainan ez bitez izan ere, garbitasun-nahiz, politikaren 'likiskeria'-tik kanpo. Era berean, ekintza-gizonak, politikariek, ez bezate beren burua pentsararen mailan profetatuz har: ezintzen bizaletetik intelektualek eta ikas».


«Horrela bai: ezkertiar politika bat egin ahal izango da».

«Gure Euskal Herriarekiko, bederen, jokabide hori preposatu nuke nik» (cfr. «Huntaz eta Hartaz», or. 48).


Intelektualek eta Alderdi politiko konkretuen arteko harremanen arazoa ere testuinguru honetaz ikusi behar da: ezker absolutorean eta erlatiboaren testuinguruan. Intelektual batek ez daduka, jeneralean, Alderdi baten txartela eduki beharrik, Alderdi baten antzinatea egin beharrik, Alderdiaren «barruan» egotea. Alderdiaren dagoena baino Alderdiaren barruaregon dagoa, Alderdiaren batere egon gabe.

Eta beste problema hau ere testuinguru hortantxe dagoela, iruditzen zait: ezkertiarasun individuala, eta talde ezkertiarren ezkertiarasuna. Errazagoa da individualki gauza denetan ezkertiar izatea, talde bat gauza denetan ezkertiar izatea baino. Esaterako, errazagoa da Sartreentzat gauza denetan ezkertiar radical izatea, Frantziako Alderdi Komunistarentzat baino. Eta, jeneralean, Alderdi Komunistaren barruko intelektual batentzat baino errazagoa, kanpoko batentzat. (Jarraitzeko).

Joxe AZURMENDI



TXIMIST-INDAR SAILLA  
Departamento ELECTRICIDAD  
LANERAKO BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA  
Aparato de maniobra, distribución y control



OLIO-INDAR SAILLA  
Departamento HIDRAULICO  
GARBE-LAHMEYER  
WUPPERTAL-ALEMANIA'ko  
Etxearen banaketa ta teknika laguntza  
Banaketa ta Teknika laguntza:  
REX-ROTH GMBH Alemania  
RUHRITAL Sp A Olio-Indarra, Istita  
TUROLLA Sp A. Italla

**Goimendi - Automatismo**

AUTOMATISMO

Lantegi ta landolag: Joisekistak (Herrera) SAN SEBASTIAN Urrut. 353840 (7 ar) ta 351999 Telex. 39173 GOIME E Erakusketak eta dendak: Iparraguirra, 15-SAN SEBASTIAN Urrut. 428082 ta 428625 Ordezkeritza: Eduño Serdiza, 18. Urrut. 230933-33 VITORIA